AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA COD.EXP.	**2023ZERL0002**

AZKOITIRA EAEtik KANPO DATOZEN IKASLEEI ESKOLA ORDUZ AT EUSKARAZKO ERREFORTZUA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Azkoitira EAEtik kanpo Oinarrizko Hezkuntzara datozen ikasleei eskola orduz at euskarazko errefortzua emateko zerbitzua eskaintzea.

2. ZERBITZUAREN BEHARRA

Oinarrizko Hezkuntza derrigorrez egin beharreko etapa da, eta Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak osatzen dute.

Azkoitian Oinarrizko Hezkuntza D hizkuntza ereduan da.

Eredu horretan euskara komunikazio hizkuntza da. Hau da, hezkuntzako hizkuntza nagusia euskara da. Hortaz, irakasgai guztiak euskaraz ematen dira, gaztelera eta literatura irakasgaia eta atzerriko hizkuntza salbu.

Udalaren helburua da ikasle horiek euskaraz ikasketak egin ahal izateko eta euskaraz bizi den herrian gizarteratzeko ahal denik eta azkarren gutxieneko gaitasuna lortzea hizkuntza horretan.

Horregatik, hezkuntza arautuak ikasle horientzat ezartzen dituen baliabideak osatu eta ikasle horien euskara ikaste prozesua bizkortzeko, udalak herrian eskolatu edo eskolatuko diren ikasle etorri berriei euskarazko errefortzu eskolak jasotzeko zerbitzua eskaintzen dizkie eskola orduz at.

Udalak bere baliabide propioekin zerbitzua ezin duenez eman, kontratatu behar du.

3. ZERBITZUA JASOKO DUTEN IKASLEAK

Zerbitzua jasotzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte: EAEtik kanpo etorritakoa izatea, Oinarrizko Hezkuntzako ikasmailetan matrikulatua izatea, Azkoitian euskaraz gizarteratzeko euskara gaitasunik ez izatea eta ikastetxeko zuzendaritzak proposatutakoa izatea.

Ikasleek zerbitzua gehienez elkarren segidako bi ikasturteetan jasoko dute, jarraipen taldea entzun eta gero, udalak besterik erabakitzen ez duen bitartean. Zerbitzuaren onuradun izateko ezinbesteko betebeharrak dira hilero % 85eko asistentzia izatea, zerbitzuaren programarekin bat egitea, araudia betetzea, bizikidetza positiboaren alde egitea, zerbitzuko kide ororen eskubide eta betebeharrak errespetatzea, udalak bereak eginak dituen berdintasunaren- parekidetasunaren- hezkidetzaren ildoak onartzea eta jarrera eta portaera onak erakustea.

Eskola orduz kanpoko zerbitzua izanik, parte hartzea borondatezko izango da.

4. HELBURUAK

EAEtik kanpo datozen eta herriko eskoletan Oinarrizko Hezkuntzan matrikulatuta edo matrikulatuko diren ikasleek euskaraz gutxieneko gaitasuna lehenbailehen lortzeko, ulermena eta mintzamena lantzea.

5. ZERBITZUAK ETA EDUKIA

Zerbitzua eskola orduz kanpo izanik, lehentasuna emango zaio testuinguru ludikoari, herritartasunari, eraginkortasunari eta euskaraz esperientzia positiboak izateari.

Kontratista ikasleekin euskaraz jardungo du une oro eta bakoitzaren euskara gaitasuna kontuan hartuta, estrategiak garatuko dira zerbitzu jasotzaileen euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

Enpresa esleipendunak hasieratik ezarriko ditu bete beharreko arauak. Are gehiago, araudiaren berri ikasle guztiei emango die kurtso hasieran, klasean ikasleren batek arauren bat hausten duen bakoitzean eta ikasle berriren bat programan parte hartzen hasten denean. Gurasoei ere kasu guzti horietan araudiaren berri emango die esleipendunak. Hortaz, esleipendunaren egitekoa da araudia betearaztea (1. Eranskina).

Klase orduetan ikaslearen ardura esleipendunarena da.

Enpresa esleipendunak koordinatzaile lanak egingo dituen pertsona izendatu beharko du. Pertsona hori izango da euskarazko klaseetan gurasoentzako erreferentzia eta solaskidea. Baita jarraipen taldeak eta udalak emandako jarraibideak zerbitzuan txertatzeko arduraduna ere.
Esleipendunak une oro udalari, ikastetxeei eta gurasoei eskatutako informazioa

emango die.

Zerbitzua udaletxeko jabegoa den Kultur etxeko 3. solairuko geletan edota egitasmoa garatzeko egokia den bestelako edozein gunetan emango da. Baina, kontratistak zerbitzua ematen hasi aurretik, oro har eskolak non emango dituen jakinaraziko dio udalari, ikastetxeei eta familiei. Baita klaseak hasi aurretik eta bukatutakoan, gurasoek ala tutoreek non utzi eta jaso ahal izango dituzten seme-alabak ere.

Ikasturte hasieran ikastetxeetako zuzendariek udalari aurkeztuko diote zerbitzua jasotzeko premia duten ikasleen zerrenda. Udalak ikasleen familiei gutun bana ele bitan bidaliko die azalduz, seme-alabak zerbitzua jasotzeko premia duela eta izen-ematera gonbidatuz. Izen emandako ikasle kopuruaren arabera kontratistak taldea/k proposatuko ditu honakoak zehaztuz:

- Irakaslea.
- Klase orduak astean.
- Taldeko partaideen izen-abizenak, ikastetxea, adina eta maila.
- Kurtso osoko klase orduak.
- Klase egutegia.

Proposamen hori zerbitzua eskaintzen hasi aurretik, udalak onartu beharko du. Taldeak osatu eta gero, plaza libreak geldituz gero, kurtsoan zehar herriko ikastetxeek aukera izango dute beharra badago, zerbitzua jasotzeko hautagai berriak proposatzeko. Plaza guztiak betez gero, udalak esleipendunarekin kontratuaren baldintzak aldatzeko aukerak aztertuko ditu zerbitzua zabaltzeko. Halere, kontratista taldeko partaide kopuruan malgua izango da, eskolaz kanpoko beste jarduerak direla eta, sarritan talde bereko partaide guztiak ez doazelako egun berean euskarazko eskoletara. Halaber, taldea osatzeko Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gutxienez sei ikasle beharko dira.

Kontratistak ikasleen datu base eguneratua izango du. Baita jarraipen taldeko kideena ere.

Esleipendunak ikasleen asistentzia egunero kontrolatuko du. Esleipendunak izen-abizenak, maila eta ikastetxea zehaztuta zerbitzua jaso duten ikasleen hileroko asistentzia bidaliko du udalera eta herriko ikastetxeetara. Talderen batean asistentzia jaisten bada, esleipendunak neurriak hartuko ditu asistentzia bere onera ekartzeko. Ikaslea klasera ez doan egunean, berriz, familiari deituko dio egunean bertan eskoletan egiten den bezala eta ulermen arazoei aurre egiteko beharrezkoa denean, aurrez aurreko bilera eskatuko dio gurasoari ala legezko tutoreari. Haurra klasera joan eta alde egiten duenean, ere prozedura bera jarraituko da.

Zerbitzuaren jarraipena eta balorazioa udalak, herriko ikastetxeek eta kontratistak

egingo dute. Horretarako erakunde horietako ordezkariek enpresa esleipendunak zerbitzua koordinatzeko izendatutako langilearen eskutik honako txostenak jasoko dituzte: zerbitzua ematen hasi aurretik Urteko Plana, gabon ondoren Urteko Planaren jarraipenari dagokion lehen ebaluazio txostena eta ikasturte bukaeran Urteko Planaren garapenari eta ebaluazioari buruzko memoria eta hobekuntzarako txostena.

Zerbitzua jaso duen ikasle bakoitzari buruzko ebaluazioa ere egingo du esleipendunak ikasturte bukaeran. Ikastetxeek eta familiek ezagutzeko ikasturte berriari begira ikaslearen gaitasuna eta gabeziak.

Ikasleekin landu beharreko-edukiak zehazteko esleipenduna ikastetxeetako Hizkuntza Errefortzuko Irakasleekin bilduko da.

Kontratistak gurasoekin bilerak taldeka zein bakarka egingo ditu ikasleen asistentziak, ordukotasunak, aprobetxamenduak, parte hartzeak, arretak edo jarrerak eskatzen duen bakoitzean. Epe jakinean egoera aldatu ezean, esleipendunak neurri zorrotzagoak hartuko ditu eta ikastetxea eta udala informatuko ditu.

Jarrera arazo larriak izanez gero, kontratistak kanporatu egingo du zerbitzu jasotzailea txosten arrazoitua bidaliz gurasoei, udalari eta ikastetxeari.

Zerbitzua ematerakoan, sortutako gorabeheren edota aldaketen berri familiei esleipendunak idatziz jakinaraziko die. Egingo diren ekintza osagarrien informazioa ere modu berean emango die. Horretarako, oharrak ele bitan idatziko dira euskarari lehentasuna emanez.

6. LANGILEEN PRESTAKUNTZA BALDINTZAK

Zerbitzua emango duten langileek Gizarte Hezkuntzako Gradua izan beharko dute edo Heziketaren zein Gizarte Zientzien arloan erdi zein goi mailako beste titulua (Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia, Irakasle-ikasketak, Gizarte Langilea ...).

7. LAN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Zerbitzua astelehenetik ostiralera urritik maiatza arte emango da, eskola egutegia jarraituz eta oporretan eten egingo da.

Klaseak gutxienez 45 minutukoak izango dira. Klase ordua 17:15ean hasiko da.

Ikasturte hasierako ikasle kopuruaren arabera zehaztuko da ikasturteko taldea/k eta talde bakoitzean emango den errefortzu eskola orduak guztira.

Ikasturtean zehar beharra egonez gero, kontratistak proposamen arrazoitua eta aurrekontua udalari helaraziko dio eta horrek onartuko balu, talde kopurua, klase ordutegia eta taldeko jaso beharreko eskola orduak aldatzea legoke eskaerari erantzun ahal izateko.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Azkoitia eta bertako baliabideei lotutako zerbitzuari buruzko proposamen teknikoa, ahalik eta zehatzena, gehienez 10 orriko DINA 4 alde bakarretik Calibri 12 letra estiloan idatzita ondorengo edukiarekin:

- Helburuak eta lan metodologia.
- Adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak.
- Zerbitzuaren barne antolaketa eta garapena. Lantaldeko ardurak, funtzioak, jarduerak eta lanak.
- Koordinazioa, barnekoa (lantaldekoa) eta kanpokoa (gurasoekin, ikastetxeekin eta udaleko Euskara zerbitzuarekin)
- Komunikazioa.
- Ebaluazioa.

9. LIZITAZIO TIPOA ETA GEHIENEKO AURREKONTUA

Zerbitzuaren gehieneko urteko aurrekontua **25.756,00 € (BEZ gabeko jarduera)** izango da, eta kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek euren eskaintzetan.

Talde kopurua aldez aurretik zehazterik ez dagoenez, kontratuaren lizitazioa talde bakoitzeko prezio unitarioan oinarrituko da.

Gehienezko lizitazio prezio unitarioak honakoak dira:

Talde/orduko saria: 55,75 € (BEZ gabeko jarduera).

Koordinazio/prestaketa orduko saria: 27,31 € (BEZ gabeko jarduera)

Kontratistak zerbitzua ematen hasi aurretik Urteko Planarekin batera egutegia, talde kopurua eta talde orduen araberako aurrekontua aurkeztuko du udalean. Zerbitzua abiarazteko aurrekontu hori udalak onartzea ezinbestekoa izango da.

10. LANAREN JABETZA

Zerbitzuaren ondorioz sortutako txostenen eta bestelako barne-agirien jabetza intelektuala eta ustiapena, udalarena izango da.

Debeku hori bete ezean, esleipenduna izango da hortik sortutako kalte eta eragozpenen erantzule.

11. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Hizkuntza gaitasuna

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte. Horregatik, Azkoitira EAEtik kanpo etorritako ikasleei eskola orduz at euskarazko errefortzua eskainiko duen enpresako langileek ahoz eta idatziz harremanak izango dituzte udalarekin, ikasleekin, zuzendariekin, tutoreekin eta hizkuntza errefortzuko irakasleekin eta txostenak, asistentzia orriak, euskarazko eskolak, azalpenak eman balorazio bileretan, eta abar egingo dutenez, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea) egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Horretarako, zerbitzua emango duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu esleipendunak.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Hizkuntza erabilera herritarrekin

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan ...) euskaraz egingo da, zerbitzuan dabiltzan ikasle etorri berrien gurasoen kasuan izan ezik, horiek oro har euskaraz gaitasunik ez dutelako.

Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, ordutegiak …) euskaraz egingo dira, zerbitzua darabilten ikasle etorri berrien familien kasuan izan ezik. Horiei idatziak elebitan bidaliko zaizkie betiere euskara lehenetsita, mezua ulertu dutela ziurtatzeko. Gainerako kasuetan herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak eta, maila desegokia balitz, esleipendunari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

<u>Hizkuntza erabilera administrazioarekin</u>

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratua, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak ...) euskaraz izango dira.

Txosten honek bere ondorioak izan ditzan,

Azkoitian, 2023ko martxoaren 14an.

Jasone Bilbao Atutxa
Euskara teknikaria

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. eranskina

Eskolaz kanpoko euskarazko errefortzu-eskoletarako ARAUDIA

1. Zerbitzua jasotzeko ezinbesteko betebeharrak:
. Hilero % 85eko asistentzia izatea.
. Zerbitzuaren programarekin bat egitea.
. Araudi hau betetzea.
. Bizikidetza positiboaren alde egitea.
. Zerbitzuko kide ororen eskubide eta betebeharrak errespetatzea.
. Udalaren berdintasunaren- parekidetasunaren- hezkidetzaren ildoak onartzea.
. Jarrera eta portaera onak erakustea.
. Izen-emate orria epe barruan beteta eta aitak, amak ala legezko tutoreak sinatuta ikasleak matrikulatuta dagoen eskolan entregatzea.

2. Ikasleek zerbitzua gehienez elkarren segidako 2 ikasturteetan jasoko dute, jarraipen taldea entzun eta gero, udalak besterik erabakitzen ez duen bitartean.

3. Ikasleek ez datoz jolastera ezta denbora galtzera ere, euskara ikasi eta maila hobetzera baino, horren premia dutelako.

4. Zerbitzua urritik maiatza arte da, eskola egutegia jarraituz eta oporretan eten egingo da.

5. Izena ematen duen ikasleak konpromisoa hartzen du eskolan bezala urritik maiatzera klaseetara joateko eta bertako funtzionamendua betetzeko. Hau da, ikasleak eskolan moduan ordutegia eta irakasleen esana bete behar du, ariketak egin behar ditu, besteak errespetatu behar ditu ...

6. Eskola ordutegia:
Lehen Hezkuntzan astelehenetik ostegunera 17:15-18:30. Hilean ostiral bat 17:15-18:30.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan astelehenetik ostegunera 18:30-19:30. Hilean ostiral bat 17:15-18:30.

7. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik beherako ikasleak klaseetara gurasoek ala legezko tutoreak ekarriko dituzte ala horiek aukeratutako pertsonak eta 17:15ean jaso ere bai.

8. Eskola ordua Lehen Hezkuntzan 17:15ean hasiko da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, 18:30ean. Ordu horretan euskarazko klasean ez dagoen ikaslearen ardura ez da euskaltegiarena, gurasoena ala legezko tutorearena baino.

9. Eskola orduetan ikaslearen ardura esleipendunarena da.

10. Euskarazko eskoletako gurasoentzako erreferentzia programako koordinatzailea da.

11. Asistentzia egunero kontrolatuko da. Horregatik, ikaslea klasera ez datorrenean, esleipendunak familiari deituko dio egunean bertan eskoletan egiten den bezala.

12. Haurra klasera etorri eta alde egiten duenean, esleipendunak familiari deituko dio egunean bertan eskoletan egiten den bezala.

13. Ikaslea klasera joaterik ez duenean (medikua, azterketa, gaixorik edo dena delakoarengatik), esleipendunari deituko da.

14. Ikaslea gaixorik badago, ez da euskarazko klaseetara bidaliko eskolara bidaltzen ez den moduan, besteak ez kutsatzeko eta esleipendunari deituko da.

15. 3 falta larri egiten dituen ikaslea programatik kanpo geratuko da. Falta larriak honakoak dira:
. Klasea boikotatzea.
. Irakasleak agindutakoa ez betetzea.
. Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea.
. Irakasle edo ikaskideen aurkako adeitasunik gabeko jarrera, keinu edo hitzak.
. Klaseko materiala lapurtzea.
. Behin klasera etorrita, alde egitea.
. Diskriminazioa dakarren edozein ekintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere. Jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
. Zabarkeriagatik, instalazioei, materialari edo beste kideen gauzei narriadurak eragitea.

16. Klasea gelan denean, ikaslea eskaileratatik ilaran eta lasai igoko da dagokion gelara eta aulkian eseriko da.

17. Ikasleak ekarriko du arkatza edota boligrafoa, borragoma eta txorroskiloa.

18. Ikasleak jostailuak ekartzen baditu, gelatik kanpo horiek denok jolasteko izango dira, bestela jaso egingo dira. Gelan jostailuak jaso egingo dira saioa bukatu arte.